




MAKILAKIXKI

Obra lantzeko proposamen didaktikoa

Liburuaren fitxa



Izenburua: Makilakixki

Idazlea: Herrikoia

Moldaketa: Sagrario Yarnoz eta Joxan Ormazabal

Argitaletxea: Elkarlanean

Argitalpen data: 1998

Laburpena

Familia batean aita eta hiru seme bizi ziren. Egun batean seme zaharrena munduan barrera joan zen eta, azkenean, baserri batean geratu zen lanean. Oso ondo lan egin zuenez bertako nagusiak asto bat eman zion. Astoari "egin ezak urrea" esanez gero, astoak kaka egin beharrean urrea egiten zuen.

Anaia nagusia etxerako bidean ostatu batean geratu zen lo egiten. Ostalariari eskatu zion astoari ez esateko "egin ezak urrea" baina ostalariak gauean, astoak urrea egiten zuela ikustean, aldatu eta beste asto bat eman zion hurrengo egunean. Etxeratzerakoan astoak ez zuen urrerik egin eta familiakoek lehen bezain pobre jarraitu zuten.

Bigarren anaiak berdin egin zuen eta honi baserritarrak mahai bat eman zion. Mahaiari "jar ezak bazkaria" esanez gero janariz betetzen zen. Eta bigarren anaiari, zaharrenari bezala, ostalariak mahaia aldatu zion.

Hirugarren anaiak makil bat jaso zuen ordain moduan baserrian. Baina makil horri "Makilakixki" esanez gero kolpeak eman eta dena apurtzen zuen. Ostalariak gauean makilari hitz hori esatean kolpeka hasi zen eta ostatu guztia apurtzen, baita ostalaria kolpatzen ere, hasi zen.

Anaia txikiak anaien astoa eta mahaia errekuperatu zituen makila gelditzearen truk. Eta, horrela, denak pozik eta zoriontsu bizi izan ziren.

Zergatik irakurri liburua

Ipuin entretenigarria da, zalantzarik gabe, Makilakixki hau. Gainera, herri ipuina izanik gure tradizioa eta jatorria ezagutzeko aukera ematen digu.

Ipuin honek, gainera, baditu irakaspen batzuk. Alegia, gezurrak –edo gaiztakeriak- bere ordaina duela; azkarra izatea indartsua baino baliotsuagoa dela, ondo arituz gero saria jasoko duzula,...

Ipuinaren egitura errepikakorrek erraztu egiten du irakurketa eta ulermena, baita ipuinaren argumentua gogoratzea ere. Eta honek guztiak animatu egiten du irakurle hasi berria.

Eta, azkenik, liburuan dauden irudiek lagundu egiten dute argumentua jarraitzen eta istorioa ulertzen.

Irakurri aurretik

1. Jarduera.

Helburuak:

- Irudimena lantzea
- Klasekoen artean debatea bultzatzea
- Liburuarekiko interesa piztea

Liburuaren azala ikusita, gizon bat ikusten da makurtuta eta gazte bat geldi ezker aldean. Izenburua, aldiz, Makilakixki da. Zeri buruzko liburua dela uste duzue? Zertaz izan daiteke? Komentatu gelakoekin eta ea zer ateratzen duzuen...

2. Jarduera.

Helburuak:

- Irudimena lantzea
- klasekoen artean iritzi trukaketa bultzatzea
- Liburuarekiko interesa piztea

Jarduera honetan antzeko izenburuak / tresnak asmatuko ditugu.

Irakurriko dugun liburua MAKILAKIXKI da. Zer izango da hori? Zer makil mota dela uste duzue? Zertarako balio du?

Eta zuek, asmatuko zenituzke beste tresna magiko batzuk? (esaterako, bizikletakixkia; pilotakixkia; boligrafokixkia;...) adierazi zertarako diren.

3. Jarduera

Helburuak.

Kultura ezagutzea

Debatea sortaraztea

Adierazpen ezberdinak ezagutzea

Hitz magikoak landuko ditugu.

Ondoren ageri diren espresioen artean aukeratu zeintzuk diren "magikoak" eta, baldin badakizue, adierazi zertarako erabiltzen diren.

-Makilakixki

-Abakadabra

-Agur Benhur

-Abriteportasklis klas

-Txintxin

-Artxilamortxila

-Arranopola

-Dringidranga

-Baga, biga, higa

4. Jarduera

Helburuak.

Gure kultura ezagutzea

Azalpena ematen ikastea

Klasekoen artean debatea bultzatzea

Makilak gure artean. Gure gizartean esanahi berezia duten makilak daude ... ezagutzen dituzue?
Euskal Herrian makila asko egoten dira:

-Alkatearen makila

-Santa Agedako makila

-Artzainen makila

- ...

Ezagutzen al duzue besteren bat?

Asaldu zertarako den makil horietako bat.

Irakurri bitartean

Ipuinak, herrikoia izanik, gainera, aukera ematen du ozenki taldean irakurtzeko edo bakarka. Modu bietan irakur daitekeenez, agian onena izango litzateke zati batzuk bakarka eta beste batzuk taldeka irakurtzea ozenki.

1. Jarduera.

Helburuak.

Irudimena lantzea

Idazketa lantzea

Tradizioa ezagutzea

Ipuinen hasiera asmatzen.

Euskaraz herri ipuinek badituzte hasiera ezberdinak. Hona hemen horietako batzuk:

-Behin batean...

-Munduan asko bezala...

-Antzina, ugaraxoek edo igelek harriekin hitz egiten zutenean...

-Gauza guztiek hizketan zekiten denboran...

-Orain urte asko...

Zein da horietatik gehien gustatu zaizuenena? Zergatik?

Asmatuko al zenukete beste bat?

2. Jarduera

Helburuak.
Irudimena lantzea
Idazketa lantzea
Debatea sortzea klasean

Aritz anaia zaharrenaren “oparia” aldatu (jarduera hau Aritzek oparia jaso ondoren egin daiteke) Aritz itsasoan ibili zen. Imajinatu arrantzale aritu zela eta ez baserrian artzain. Zer opari egin zion nagusiak? Zertarako?

Bakoitzak berea egin eta gero taldeka aukeratu –eta taldekoen artean osatu- opari berria.

3. Jarduera

Helburuak.
Deskribapena lantzea
Hiztegia aberastea

Jarduera honetan ostalariaren deskribapena egingo dugu (ostalariarekin egon ondoren egiteko jarduera).

Ipuinean ez zaigu ia ezer esaten ostalariaz, irudietan ikusten dugu –gutxi gora behera- nolakoa den fisikoki, baina nolakoa da ostalaria?

Hona hemen adjektibo batzuk aukeratzeko eta ostalariaren deskribapena egiteko:

-txikia	-maltzurra	-pobrea	-azkarra
-lodia	-patxadatsua	-zekena	-triste
-iletsua	-jatuna	-alferra	-eskuzabala
-ona	-harroa	-kirolaria	-langilea
-sinpatikoa	-berritsua	-gaiztoa	-irribarretsua

4. Jarduera

Helburua.
Deskribapenak eta konparaketak lantzea

Eta anaiak? Zein animaliarekin konparatuko zenituzkete...? (ipuina irakurrita egiteko jarduera) ARITZ... lehoia, idia, saga, mozoloa...

Aritz lehoia bezain indartsua zen, esaterako. Edo zein animalia aukeratu zenukete zuek?

Eta BEÑAT? Txoria, katua, hontza, elefantea, zaldia,...

5. Jarduera

Helburuak.

Irudimena lantzea

Deskribapenak lantzea

Iritzi trukaketa bultzatzea klasean. Errespetua.

Istorioak apur bat aldatuz istorioa berriak sortuko ditugu jarduera honetan (jarduera hau, edo honen aldaerak, anaia bakoitzak bere oparia jaso ondoren egin daitezke)

Mikeli nagusiak mahai bat oparitu dio. "Jar ezak bazkaria" esan eta janariz betetzen da. Baina pentsa ezazu AULKI bat oparitzen diola nagusiak Mikeli...

-Zer gertatuko da Mikel (edo beste norbait) aulki magikoan esertzean?

Idatzi labur eta gero taldeka egin proposamen bat ipuina berregiteko.

Aldaketa posible batzuk... Aritzen astoa, zaldia. Beñaten makila, soka. Eta bururatzen zaizuen guztia!!

6. Jarduera

Helburuak.

Kultura ezagutzea

Gizartean emaniko aldaketaz gogoeta egitea.

Baserritik kalera. Baserriko eta kaleko bizimodua ezberdintzeko jarduera (jarduera hau istorio amaieran egin daiteke, baina baita tartean ere).

Ipuin honetako protagonistak eta gertakariak baserrian gertatzen dira. Ipuinean ikusi dituzuen kontuetatik abiatuta, edo ezagutzen dituzuenetatik, esan baserriko bizimoduaren eta kalekoaren arteko ezberdintasun batzuk.

Gelakideen artean komentatu eta egin bi zerrenda: baserriko bizimodua, eta kaleko bizimodua.

Irakurri ondoren

1. Jarduera.

Helburua.

Ahozko adierazpena lantzea.

Herri ipuinak gogoan.

Makilakixki antzinako herri ipuina da. Gogoratzen al duzu besteren bat?, Gizon harrigarriak, Txomin ipurdi, Bigantxaren ordaina, ... Kontatu klasean.

2. Jarduera

Helburuak.

Irudimena lantzea

Idazketa lantzea

“Handik aurrera denak oso ondo bizi izan ziren”, eta hurrengo astean... zer egin zuten anaiak hurrengo astean? Idatzi labur.

3. Jarduera

Helburuak.

Irakurritakoaz gogoeta egitea.

Klasekoen arteko debatea sustatzea

Ostalariaren jokabidea eta anaiena konpara ezazue.

Ipuinean lan egin duten anaiak ageri dira, bai eta hauei lapurtzen dien ostalaria. Zer uste duzue honek jasotzen duen zigorraz? Gutxi al da? Gehiegi?

Ipuin honek zerbait irakatsi dizue bizitza nola jokatu behar dugunaz?

Gelakoen arten komentatu honetaz pentsatzen duzuen.

4. Jarduera

Helburuak.

Dramatizazioa lantzea

Dekoratuak (esku lanak) lantzea, adierazpena,...

Makilakixki ipuina antzertu.

6-7 laguneko taldetan prestatu ipuinaren dramatizazioa. (agian eskolako haur txikien aurrean antzertu ahal izateko moduan).

Paperak banatu (3 anaiak, aita, baserritarra, ostalaria, agian beste bat astoarena eginez...). Nahi izanez gero pertsonaia gehiago sor daitezke (ostatuan daudenak, bidean elkartzen direnak,...). Eskenatokia hiru dekoratutan banatu. Etxea, ostatua eta urrutiko baserria. Astoa haur bat (edo bi) izan daiteke eta berak botako luke “urrea”. Mahaia, berriz, argiak itzali eta piztu egiten diren bitartean jarri zerbait -elementu handiak mahaia betetzeko baina jartzeko errazak-. Eta makilari eskuetan duenak emango dio bizia.



Lan hau [Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia](#) baten mende dago.

Honakoak egin ditzakezu:

- Partekatu — partekatu, kopia eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan.
- Moldatu — nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu edozein xedetarako, baita merkataritza-xedetarako ere.

Honako baldintzen arabera:

- Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.
- PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.